



**2022KO APIRILAREN 25EKO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko apirilaren hogeita bostean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ontzat ematen dutela kreditu aldaketa eta alde bozkatuko dutela.

Hau guztiaren ondoren, gaia bozketan jarri da, eta udalak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	665.000,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		665.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	665.000,00 €
GUZTIRA		665.000,00 €

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

II.- FUTBOL ZELAIKO OBRAREN PROIEKTUA, KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal honen eskariz Ezketa S.L.P. enpresako Izaskun Larzabal Arzallus arkitektoak "LAZKAOKO HARIZTI HANDI FUTBOL-ZELAIKO BELAR ARTIFIZIALA BERRITZEA" proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea Lazkaoko Harizti Handi futbol zelaiaren belar artifiziala berritzea, futbol zelaiaren oraingo argiteria berritzea eta irisgarritasunaren egokitzapena burutzeko obrak gauzatzea da.

Proiektu honen aurrekontua BOSTEHUN ETA HOGETA HAMAIIKA MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI euro ETA LAUROGEITA HAMASEI zentimo (531.688,96 €)koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek proiektu honen lehen zatiaren, hau da, belar artifizialaren berritzea esleitzeko kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko. Lan honen aurrekontua BERREHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI euro ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI zentimo (266.657,98 €)koa da. Zenbateko honi BEZri dagokion BERROGEITA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI euro ETA HEMEZORTZI zentimo (55.998,18 €) erantsi behar zaio.

Alkateak esan du proiektuak duen aurrekontu zenbatekoarengatik, kontrataziorako organo eskuduna alkatea dela, eta udal honetan zenbateko hauen pareko kontratazioak tokiko gobernu batzordera eskuordetuta daudela, baina aurrekontuan partida egon zedin kreditu aldaketa plenoan onartu beharra zegoenez, honen onarpena ere osoko bilkuran egitea planteatu dela, lizitazio deialdia lehenbailehen egiteko. Horregatik kontratazio honi lotutako ondorengo izapideak tokiko gobernu batzordeak egingo dituela.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du proiektuarekin ados daudela eta beraz alde bozkatuko dutela.

LAZKAOKO
UDALA



LAZKAOKO
UDALA

Hau guztia horrela, eta gaia ogasun batzordean informatua izan delarik, gaia bozketan jarri da eta osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak hartu ditu:

1.- Ezketa S.L.P. enpresako Izaskun Larzabal Arzallus arkitektoak idatzitako "Lazkaoko Harizti Handi futbol-zelaiko belar artifiziala berritzea" proiektua, 531.688,96 € gehi BEZ aurrekontua duena onartzea.

2.- Aurreko puntuan onartutako proiektuaren "futbol zelaiaren belar artifiziala berritzea" atalari dagozkion lanak, 266.657,98€ gehi BEZri dagokion 55.998,18€ko aurrekontua dutenak, lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

3.- Kontratazio honi dagozkion ondorengo izapideak egiteko organo eskuduna udal honetako Tokiko Gobernu Batzordea izango da, alkateak emandako eskuordetzea dela eta.

III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA